

AIARALDEA: EZ DA TREGOARIK EGONGO

Eskerrik asko eta Zorionak Aiaraldea!!!

Gaur, ekainak 2, milaka langile, emakume, pentsiodun, gazte, komertzio, taberna eta eragile sozial eta sindikalok Laudioko (eta Amurrioko) kaleak bete ditugu beste behin ere SOS Aiaraldea lemapean.

Borrokak markatutako eskualde batean bizi gara. Kolpeka kendu nahi dizkiguten eskubideen alde borrokatzen ohituta dagoen eskualda gara. Ohituta gaude prekarietate sozial eta laboralaren aurka borrokatzen, badakigu zer den ahotsa, azala eta askatasuna ere uztea inguratzen gaituzten bidegabekerien aurka.

Gaur ez dugu tasei buruz hitz egingo, ezta ehunekoei buruz ere, ez gara galduko zenbakien eta datuen artean. Izan ere, ez gara ekonomialariak, ez goi enpresariak, ez eta beste pertsona batzuen etorkizuna lau hormen artean erabakitzen duen kasta politikoa ere. Ez gara zenbakiak, eta ez diegu gu grafikoetara mugatzen utziko. Hori guztia baino askoz gehiago gara, pertsonak gara, bizilagunak, ezagunak, lagunak, familiak, enpresari txikiak, autonomoak, lankideak, oinarria gara, HERRIA GARA.

Nazkatuta gaude ikusteaz belaunaldi berriek duela 40 urteko eskubide berberen alde borrokan jarraitzen dutela. Eta zer aldatu da? EZER ERE EZ. Tantaka eman dizkigute tregoak, ondoren, lehorterik handienera eramateko. Gure etorkizuna langileen eskubideak sistematikoki hondatzen dituzten politika kapitalisten esku dago. Eta politika hauek ez dira toki urrun eta abstraktuetan egiten, gure herrietako politikariek ere egiten dituzte, gure eskualdekoak, ez gaitzatela engainatu. Horregatik Eusko Jaurlaritza eta instituzio publikoei exigitzen diegu gizartearen eta mugimendu herritarren aldarrikapenei bide ematea eta erantzukizunak har ditzatela. Beharrezkoak diren politika eta ekimenak artikulatu ditzaten exigitzen diegu, bizitzak erdigunean jarriko dituen arte.

Ez dugu onartuko beste behin ere gure eskualdea eta bere bizilagun eta langileak albo batera uztea, ez dugu onartuko beste

behin ere guk ordaintzea kapitalaren eta politikari laguntzaileen diruzalekeria.

Gure lanpostuei eusteko borrokan, eztaba daezina da kaleak hartu, ahotsak goratu eta Aiaraldeak atzera pausorik ez emateko beharra.

Gure auzoetan bizi, ikasi, lan egin eta harremanak izan nahi ditugu, bizilagunez inguratu nahi dugu, jakin nahi dugu gure eskualdean ez dagoela inor soberan eta batzuentzat gauzak itsusi jartzen direnean, gainerakook kalera aterako garela geure burua defendatzeko. Aiaraldean herriaren indarra ikusi, entzun eta senti dadila. Komunitatea, bere garaian gure adinekoek egin zuten bezala, mantendu eta egituratuko dugu. Aiaraldea defendatzea guztioi dagozkigun lana eta konpromisoa da.

Eredu gara kaleak pausoz bete eta gure aldarrikapenekin laguntzen ditugunean, antolatzen garenean eta lagunei sostengua ematen diegunean. Elkartasuna gara, batasuna gara, borroka nekaezina gara. Duintasuna gara eta hori ezin dute autobusetan beste eskualde batera eramane. Hori guztia hemen dago, bidegabekeria bakoitzarekin ikaratzeko den eta guztion etorkizunaren alde borrokatzeko prest dagoen pertsona bakoitzarengan. Ez dugu ahaztu behar hau iraupen- lasterketa dela eta gure indarrak ahultzeko zain daudela. Baina ez dakite eskualde honek azken urteotako gazte prestatuenak dituela, azken hilabeteotako berrogeitaka urtekorik suminduenak eta historiako pentsiodunik nekaezinenak.

Angela Davis filosofo, antifaxista, politikari komunista, aktibista, feminista eta giza eskubideen defendatzaileak esan zuen bezala, askatasuna **ETENGABEKO BATAILA** da.

**AIARALDEAK EZ DU TREGOA GEHIAGORIK ONARTUKO,
HISTORIA GUK ETA ESKUALDEAK IDATZIKO DUGU.
ETA BORROKA HAU BURURAINO ERAMANGO DUGU.
JO ETA KE IRABAZI ARTE**